ZABALA - ARAÑA'TAR JOSEBA

MIREN - BIOTZ - SEMEA

# ELIZTIA
## GIPUZKERAZ

I MALA

H-80359
F-85223

Euskaltzaindiari
AIV
38239
Egileak

**Zabala-Arana**

**M. B. S.**

# ELIZTIA
# GIPUZKERAZ

I MALA

EKIN ETA YARRAI

DONOSTIA'

Loyola'tar Iñaki Deunaren irarkola

1924

*(Gotzai ta Lekaidaba nagusien aizuz)*

YABEA DU

Uŕutia'taŕ Gotzon, M. B. S., eŕkide ta adiskide maiteari

EGIL̃EAK.

# I

## ITZAK ETA GAUZAK

1. Itz-egiten dunak itzak oguzi edo esaten ditu.
2. Gauzak adirazteko, berai dagozkien itzak erabiltzen dira.
3. Ikuŕak edo zerbaiten ageŕkiak dira, ba, itzak.
4. Itza entzunaz, berari dagokion gauza gogoratzen zaigu.

## YARDUKIZUNAK

1.ª **Galde-erantzuketa.** *(Galdeai erantzungo die ikasleak, goiko erantzunak itzez-itz esanik ez, ordea, bestela baizik).*

Itz-egitea zer da? —Itzak zertarako erabiltzen dira? —Zeren ikuŕak dira itzak? —Itzak entzunaz zer gertatzen da? —*Ikuŕa* zer da? —*Oguzi* zer da? —*Ageŕkia* zer da?

2.ª **Uŕengo itz bakoitzak dikuŕana nun izaten dan esan.**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| eguzkia | beya | txeŕenak | satoŕa | ondaŕa |
| il̄argia | ol̄oa | arbiak | ikatza | aizea |
| odeyak | txeŕia | irakaslea | eltzea | oya |
| belaŕa | telak | lorak | aŕia | Yainkoa |
| aŕayak | zuaitzak | gotzonak | gatza | yaupa (meza) |

**3.ª Uŕengo itz bakoitzak dikuŕana yanaria ala edaria dan.**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ogia | esnea | arbia | gazta | akeita |
| ura | aŕaikia | aza | ura | baba |
| ardoa | aŕautza | geriza | sagaŕa | sagardoa |
| eztia | udarea | paitaŕa | mizpira | garardoa |
| artoa | aragia | txitxirioa | lusagaŕa | txeŕikia |

**4,ª IZAN izakoya:** *Aitatzerazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ura | gaur | lotsa | da | ura | atzo | lotsa | zan |
| zu | » | » | zera | zu | » | » | ziñan |
| ni | » | » | naiz | ni | » | » | nin'zan |
| ayek | » | » | dira | ayek | » | » | ziran |
| zuek | » | » | zerate | zuek | » | » | ziñaten |
| gu | » | » | gera | gu | » | » | giñan |

*Lotsa* ordez beste itzak ere erabiľi: *bilduŕ, gose, egaŕi; ona, gaiztoa; etoŕi, etoŕtzen, etoŕiko*, t. a.

## II

### IZKIÑAK

5. *Izkiña*, oguzkada batez oguzi edo esaten dan itza ala itz-zatia da: *bat, a-ma.*
6. Itzak izkin bat ala geyago izan ditzake; itza, ořezkero, *izkinbakaŕa, bizkinduna, iruizkinduna, labizkinduna*, ta abaŕ, izan daiteke.

ADIBIDEAK: *Ni, u-ume, a-ma-bi, e-ma-ku-me.*

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Oguzkada batez oguzten dan itza ala itz-zatia zer da? —Itzak zenbat izkin izan ditzake? —Itzak izkiñaketz zenbatakoak dira? —Itz izkinbakaŕak zenbat izkin ditu? —Bizkindunak zenbat izkin ditu?

### 2.ª Uŕengo itzak zenbana izkin dituzten esan.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| bat | sei | amaika | amasei | beŕogei | bosteun |
| bi | zazpi | amabi | amazazpi | irurogei | anei *(mila)* |
| iru | zortzi | amairu | amazortzi | larogei | unei *(miloi)* |
| lau | bederatzi | amalau | emeretzi | eun | onei *(mila miloi)* |
| bost | amaŕ | amabost | ogei | beŕeun | eidi *(biloi)* |

**3.ª Uŕengo itz bakoitzak dikuŕana** ***aberea, egaztia, aŕaya*** **ala** ***landarea*** **dan esan.**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| zozoa | usoa | aŕanoa | atea | oreña |
| bigara | makal̄ua | bisigua | ardia | zaldia |
| zumea | txil̄aŕa | izokia | garia | basuŕdea |
| antzaŕa | azeria | areitza | epeŕa | saŕdiña |
| kebelaŕa | pikondoa | izuŕdea | aŕtza | txakuŕa |

**4.ª IZAN eikoya:** *Aitatzerazko oñaldia.*

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| aŕek | orain | auŕa | maite | du | aŕek | auŕak | maite | ditu |
| zuk | » | » | » | dezu | zuk | » | » | dituzu |
| nik | » | » | » | det | nik | » | » | ditut |
| ayek | » | » | » | dute | ayek | » | » | dituzte |
| zuek | » | » | » | dezute | zuek | » | » | dituzute |
| guk | » | » | » | degu | guk | » | » | ditugu |

*Maite* ordez *goŕoto*, *iguin*, t, a., erabil̄i; baita beste zenbait aditz-izen eikoi ere: *ekaŕi*, *ekaŕtzen*, *ekaŕiko*, t. a.

## III

### IZKIAK

7. *Izkiak*, itzaren atal txikienak dira.
8. Izki batzuek oguzten geldi bezela egon gaitezke, *a*... oguzten eta; olako izkiai *gediñak* deritze. Gediñak bost dira: a, e, o, u, i.
9. Beste izkiak *igidiñak* dira, beren oguzkera igikoŕa, edo gelditu-eziña, dalako.
10. Bi gedin bat bezela, oguzkada batez, esaten diranean, *bikoitzak* dira. Sei dira: au, eu, ai, ei, oi, ui.
11. Euskel-agaka: *a, g, k, y, j, x; e, d, t, ts, tz, tx, d, ī; o, l, n, l̄, ñ; u, r, ŕ, s, z; i, b, p, m.*

### YARDUKIZUNAK

#### 1.ª Galde-erantzuketa.

Itzaren atal txikienak zer dira? —Gediñak zer dira? —Gediñak zein dira? —Igidiñak zela (nola) oguzten dira? —Zenbat eta zein dira bikoitzak? —Agaka osoak zenbat izki ditu?

#### 2.ª Uŕengo itzak zenbana gedin dituzten esan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ikusi | ikusmena | oroitu | oroimena | sena |
| entzun | entzumena | uleŕtu | uleŕmena | oldea |
| usnatu | usaimena | aditu | adimena | soña |
| txastatu | txastamena | nai | naimena | gorputza |
| ikutu | ikumena | gura | guramena | gogoa |

**3.ª Uŕengo itzak zenbana igidin dituzten esan.**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ilbeltza | garagaŕil̄a | azil̄a | udazkena | unea |
| otsal̄a | uztal̄a | lotazil̄a | eguna | gaba |
| epal̄a | dagonil̄a | negua | astea | il̄abetea |
| yoŕal̄a | iral̄a | udara | urtea | aroa |
| oŕil̄a | uŕil̄a | udabeŕia | eungia | aldia |

**4.ª IZAN eikoya:** *Aitatzerazko lenaldia.*

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| aŕek | len | auŕa | maite | zuan | aŕek | auŕak | maite | zituan |
| zuk | » | » | » | zenuan | zuk | » | » | zenituan |
| nik | » | » | » | nuan | nik | » | » | nituan |
| ayek | » | » | » | zuten | ayek | » | » | zituzten |
| zuek | » | » | » | zenuten | zuek | » | » | zenituzten |
| guk | » | » | » | genuan | guk | » | » | genituan |

*Len* ordez *erañegun*, *igaz*, t. a. erabil̄i; baita *auŕa* ta *auŕak* ordez beste izenak ere.

# IV

## IZKIXEAK ETA IZKITZAŔAK

12. Idazteko geyen erabiltzen diran izki txikiai *izkixeak* deritze.
13. *Izkitzaŕak*, noizean-bein itzaren lenengo izkitzat erabiltzen diran izki aundiak dira.
14. Lenengo izkia izkitzaŕa dute:

a) Idazkayaren lenbiziko itzak, eta kulatz edo *punto* ostezkoak;

g) Notiñai, eŕiai, ibayai, mendiai, etxeai ta, dagozkienak.

ADIBIDEAK: *Jainkoa, Mikel, Donosti, Bilbao, Bidasoa, Gorbea, Ernio, Yauregizar.*

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Izkixeak zein dira? —Idazkayaren lenengo izkitzat zein erabiltzen da? —Kulatz-ostezko izkia zein motakoa izaten da? —Zela idazte dira notin-izenak? —Beste zein idazten dira notin-izenak bezela? —Kulatza zer da?

### 2.ª Uŕengo itzak zuzen idatzi.

donosti uria
ene yainkoa
aizkoŕi mendia
eŕapel gotzona
bizkaiko ibaizabal

mitxelena basetxea
andoni deuna
miren ama
eloŕtza yauna
argia asterokoa

aguŕ, anai maite
gabon gaba
yosu auŕa
bultzi-bidea
pi doipurua

## 3.ª Beaŕ dan tokietan izkitzaŕak ipiñi.

paris aundia ta polita da. —agindua zoŕa, esan oi da. —atalan itxasoan aŕai aunitz da. —kepa buenos aires'era yoan omen da. —lan egiñezkero, ameriketara yoateka ere, txindia *(dirua)* irabazi daiteke. —obena goŕoto ez dunak ez du yainkoa maïte. —arabako uri-burua gazteiz da.

## 4.ª IZAN eikoya: *Aitatzerazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | maite | du ............ | *ura* | maite | zuan .......... |
| *zu* | » | zaitu .......... | *zu* | » | ziñuan......... |
| *ni* | » | nau............ | *ni* | » | niñuan......... |
| *ayek* | » | ditu............ | *ayek* | » | zituan.......... |
| *zuek* | » | zaitue.......... | *zuek* | » | ziñuen......... |
| *gu* | » | gaitu .......... | *gu* | » | giñuan......... |

Amabi mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *maite* ordez *saŕtu*, *atera*, *aintzaldu*, *ikusi*, t. a., erabili. *(Ikusi 52-55'g. ingoskiak).*

## V

### ESAKUNA, ESAKIA

15. Itzak, bareneko gogai edo usteak adirazteko erabiltzen ditugu.
16. Gogai osoa, edo betea, adirazten duten itzak *esakuna* egiten dute.
17. Gogai osoa adirazten ez duten itzak *esakia* egiten dute.

ADIBIDEAK:

Esakuna = *Nire txakuŕa txikia da.*
Esakia = *Nire txakuŕa.*

**Oaŕa.** Itz bakaŕa ere esakuna izan daiteke: *Zatozte.*

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Itzak zertarako dira? —Gogaya zer ote da? —Esakunak zer adirazten du? —Esakiak zer adirazten du? —Esakunak egiteko itz asko beaŕ izaten al dira beti?

### 2.ª Esakunak eta esakiak zeindu.

Ume, gogoz ikasi. —Itxumustuan. —Zalapartaka etoŕi zan. —Goizean goiz. —Ilunabaŕean yoan nintzan. —Mikel'en etxeko sagardoa. —Au bai-dala ogi gozoa! —Suak aŕtuta daude.

## 3.ª Esakiak esakun biurtu.

Ume ikasnayak... *(zer egiten du?)* —Mutiko ona... —Ume gaiztoa... —Ikastetxea... *(zertarako da?)* —Itxasoan aŕayak... —Aŕantzaleak itxasora... —Kistaŕ ona izateko... —Seme txintxoa izateko... *(zer beaŕ da?)* —Suak... —Eguzkiak egunez... —Ilargiak...

## 4.ª IZAN eikoya: *Aitatzerazko oñaldia.*

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *aŕeri* gau | ona | opa | dio...... | gau | onak | opa | dizkio...... |
| *zuri* » | » | » | dizu..... | » | » | » | dizkizu..... |
| *niri* » | » | » | dit....... | » | » | » | dizkit...... |
| *ayei* » | » | » | die....... | » | » | » | dizkie...... |
| *zuei* » | » | » | dizue.... | » | » | » | dizkizue.... |
| *guri* » | » | » | digu..... | » | » | » | dizkigu..... |

Amabi mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *gau ona opa* ordez *sagaŕa eman*, eta *gau onak opa* ordez *antzezkiak erakutsi*, t. a., erabili. *(Ikusi 52, 53'g. ingoskiak.)*

# VI

## ESAPURUA, EZAŔKAYA

18. Esakunaren buru bezela dana, *esapurua* da.
19. Esapuruatzaz esaten dana, edo ezaŕi egiten zayona, *ezaŕkaya* da.

ADIBIDEA: Kistaŕ onak uŕkoa maite izaten du.
Esapurua = *Kistaŕ onak.*
Ezaŕkaya = *Uŕkoa maite izaten du.*

**Oaŕa.** Esapurua ta ezaŕkaya *agiriezak* izan daitezke: *Ona zera (zu); Nork yo zaitu? —Txabieŕtxok (yo nau).*

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Zer da esapurua? —Zer da ezaŕkaya? —Esapurua ta ezaŕkaya beti agirian egoten al dira? —Esakun bateko esapurua izen bat bakaŕa izan beaŕ al da?

### 2.ª Esapuruai ezaŕkai egokiak ezaŕi.

Eluŕa... —Ogia... —Beyak... —Aŕantzaleak... —Yakoba'ren semeak Yoseba beren anaya... —Noe'k... —Kan Noe'ren semea... —Yosu-Kisto... —Irakasleak... —Gipuzkoa...

### 3.ª Ezaŕkayai dogozkien esapuruak ipiñi.

... egin zituan ortze-ludiak. —... Yainkoaren Ama da. —... Belen'go estalpean yayo zan. —... Ebe atzipetu egin zuan. —... Gipuzkoa'ko uri-burua da. —... aragia saltzen dute. —... ogiak egiten dituzte.

### 4.ª IZAN eikoya: *Aitatzerazko lenaldia.*

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *aŕeri* | gau | ona | opa | zion...... | gau | onak | opa | zizkion..... |
| *zuri* | » | » | » | zizun..... | » | » | » | zizkizun.... |
| *niri* | » | » | » | zidan .... | » | » | » | zizkidan.... |
| *ayei* | » | » | » | zien...... | » | » | » | zizkien..... |
| *zuei* | » | » | » | zizuen ... | » | » | » | zizkizuen... |
| *guri* | » | » | » | zigun .... | » | » | » | zizkigun.... |

Amabi mordoska abzlako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *gau ona opa* ordez *txindia ostuko*, ta *gau onak opa* ordez *atzo idaztiak kendu*, t. a., erabiḹi. *(Ikusi 54, 55'gaŕen ingoskiak.)*

## DOMINGO KANPAÑA

Mando baten gañean
Domingo Kanpaña;
Ez diyoa utsikan
Mando oŕen gaña:
Azpian diyoana
Mandoa da, baña,
Gañekoa ere ba-da
Azpikoa aña:
Mando baten gañean
bestea, alajaña!

BILINTX.

VII

## EZAŔPURUA, ADITZA

20. Esapurua zer dan ala nolakoa edo zelakoa dan adirazten dun ezaŕkai-zatia, *ezaŕpurua* da.
21. Esapuruatzaz edo izan edo gertatu edo zerbait egin dula adirazten dun ezaŕkai-zatia, *aditza* da.

ADIBIDEAK: *Nire ama ona da; ori umea dezu.*
Ezaŕpuruak = *ona, umea.*
Aditzak = *da, dezu.*

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Ezaŕpurua zeren zatia da? —Ezaŕpuruak zer adirazten du? —Zeren zatia izaten da aditza? —Aditzak zer adirazten du? —Esakunak ezaŕpuru ta aditz bana baño geyago izan ote ditzake?

### 2.ª Uŕengo esakunetan zein itz ezaŕpuruak eta zein aditzak diran esan.

Gure etxea aundia da. —Ander seme txintxoa degu. —Bi gizon etoŕi zazkigu. —Ori gora-bera, bilduŕ ez gera. —Zu bezelakoa omen zan. —Pelotariak gizon leŕdenak izan oi dira. —Gure aŕtean ostikalari bikañak dira.—Ostikoketa osasungaŕia da; eta giza-semeak ardantegi ta sagardotegietatik uŕutiratzen ditu.

**3.ª Uŕengo izen bakoitzak dikuŕana landare aundia ala txikia dan esan.**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| uraza | ametza | zumaŕa | ostatxuria | maua (krabela) |
| erkia | lizaŕa | udarbia | baratzuria | saratsa |
| ilaŕa | tipula | gorostia | muxikondoa | zitoria |
| uŕitza | maŕubia | astigaŕa | zangoŕia | uŕdamutuŕa |
| pagoa | ziza | ereñotza | arkakaratsa | asuna |

**4.ª IZAN-izakoya:** *Aitatzerazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | aŕeri | lotsa | zayo,...... | atzo | lotsa | zitzayon,........ |
| *zu* | » | » | zatzayo,... | » | » | zintzayon,....... |
| *ni* | » | » | natzayo.... | » | » | nintzayon,...... |
| *ayek* | » | » | zazkio,.... | » | » | zitzazkion,....... |
| *zuek* | » | » | zatzazkio,.. | » | » | zintzazkion,..... |
| *gu* | » | » | gatzazkio,.. | » | » | gintzazkion,..... |

Amabi mordoska abetako beste aŕpuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *lotsa* ordez *galdu, etxeratu,* t. a., erabiĺi. *(Ikusi, 68, 69'g. ingoskiak).*

## VIII

### ADITZA: EIKOYA, IZAKOYA

22. Esapuruak zerbait egiten dunetz adirazten digun aditza, *eikoya* da.
23. Egipenik ez dikuŕan aditza, *izakoya* da.

ADIBIDEAK:

Aditz eikoyak = *izan (du), ekaŕi, ikusi, yosi, yan.*

Aditz izakoyak = *izan (da), etoŕi, yoan, ibiĺi, egon.*

**Oaŕa.** Aditza eikoya ala izakoya dan igaŕteko, *du* ala *da* yaŕtzen zayon begiratu; biok yaŕtzen zazkiona, *bitakoa* da.

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Aditz eikoyak zer adirazten digu? —Aditz izakoyak zer adirazten digu? —Aditza eikoya ala izakoya dan zein bidez ezagutzen da? —Eikoya ta izakoya daiteken aditzik bai al da?

### 2.ª Aditz eikoya ala izakoya ipiñi beaŕ dan.

Lapuŕak dirua ostuta mendira iges egin... atzo; berai yazaŕka gizon asko atera...; bañan atzitu ez...; gaur, beŕiz, bi artzaik ikusi omen...; iru omen...; 1.300 lauŕleko ostu...

3.ª **Margoak:** *zuria, beltza, gor̃ia, oria, urdiña, or̃legia.*

Esnea... da. —Zozoa... da. —Ortze edo zerua... da. —Ikatza ... da. —Gatza... da. —Odola... da. —Ar̃bela... da. —Ur̃ea... da. —Zil̃ar̃a... da. —Ostoak... dira.

4.ª **IZAN eikoya:** *Elkar̃erazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | maite | dezan ........ | *ura* | maite | zezan......... |
| *zu* | » | zaitzan ....... | *zu* | » | zintzan........ |
| *ni* | » | nazan ....... | *ni* | » | nintzan ....... |
| *ayek* | » | ditzan ........ | *ayek* | » | zitzan......... |
| *zuek* | » | zaitzaen ...... | *zuek* | » | zintzaen ...... |
| *gu* | » | gaitzan ....... | *gu* | » | gintzan ....... |

Amabi mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta aizkiok *la* atzizkia erantsirik erabili: *bete dezala* agindu da, *bete zezala* agindu zan, t. a. *(Ikusi 56-59'g. ingoskiak).*

## EUSKAL-ER̃IA

¡Ara zein alaya dagon
gure sorter̃ia
aritz, pago ta lizar̃
bikañez jantzia!
Alde bateko mugan
itxas ugaria,
ar̃kaitza jo ta astintzen
bere apar̃ txuria;
saroi oparotsuak,
kerizpe geldia,
baser̃itxoak nunai
ta nunai pakia;
mendi-gain bakoitzean
txabola txikia,
artalde bat ondoren,
gero... gurutzia!

*Ar̃ese'tar Emeteri.*

# IX

## ADITZ-BURUAK: IZAPURUA, EIPURUA, ELBURUA, AŔPURUA

24. *Izapurua*, aditz izakoyetako esapurua da.
25. *Eipurua*, aditz eikoyetako esapurua da.
26. *Elburua*, aditz eikoyetan bakaŕik izaten da; eta aditz eikoyak egin edo iritxi bezela dagiana da.
27. *Aŕpurua*, aditzak dikuŕana aŕtu bezela egiten duna da; eta naiz aditz eikoyak naiz izakoyak izan dezakete.

ADIBIDEAK: *Txiroa aberatsari ukaŕ eske datoŕkio; aberatsak ukaŕ egingo dio txiroari.* Izapurua = *txiroa*. Eipurua = *aberatsak*. Elburua = *ukaŕa*. Aŕpurua = *aberatsari, txiroari*.

## YARDUKIZUNAK

1.ª Aditz izakoyetako esapuruak zein izen du? —Aditz eikoyetako esapurua beste izenez izendatzen al da? —Elburua zein aditz-motetan izan daiteke? —Aŕpurua zein aditz-motetan izaten da?

**2.ª Uŕengo aditzai eipuru ala izapuru egokiak ipiñi.**

... txistu yotzen du. —... atxuŕka egiten du. —... pelotan aritzen da. —... oleŕkiak egiten ditu. —... irakatsi egiten du, eta... ikasi beaŕ du.

## 3.ª Uŕengo ipuyan aditz-buruak zeindu.

### INTXAUŔA

Intxauŕdi edeŕ bateko itzalian jolastutzen ari ziran mutil koxkoŕ bik aŕkitu zuten intxauŕ bat.

—Nerea dek—zion Iñaki'k—; nik ikusi diat lenbizi.

—Ez—erantzun zion Txomiñ'ek—neretzat izango dek, neronek aŕapatu detalako.

Beriala sortu zan biyen artean inkimako izugaŕi bat. Lenbizi itz-goraz, gero aseŕez, ta azkenez buŕuka.

Onetan ari zirala, eldu zan beste mutil indartsuago bat, eta buŕukari biyen aŕtean jaŕita onela itz egin zuen:

—Tira, adizkideak, geldi! Nik erabakiko dizuet auzi ori.—Eta intxauŕa erdibituaz, jaŕaitu zuen.—Oskol-erdi au lenbizi intxauŕa ikusi duenentzat, eta beste erdia lenbizi aŕapatu duenentzat. Mamia neri egokitzen zait epai-saritzat.

Au izaten da auzi guzien amaya:
Malmuzkeri asko ta onura gutxi.

*(Ipuin labuŕak).* GARITAONANDIA'TAR BITOR.

## 4.ª IZAN eikoya: *Elkaŕerazko oñaldia.*

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *aŕeri* | gau | ona opa | dizayon.. | gau onak opa | dizazkion..... |
| *zuri* | » | » | » dizazun.. | » | » | » dizazkizun.... |
| *niri* | » | » | » dizadan... | » | » | » dizazkidan... |
| *ayei* | » | » | » dizayen.. | » | » | » dizazkien..... |
| *zuei* | » | » | » dizazuen.. | » | » | » dizazkizuen... |
| *guri* | » | » | » dizagun.. | » | » | » dizazkigun.... |

Amabi mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *gau ona opa* ordez *ikaskaya azaldu*, eta *gau onak opa* ordez *okeŕ-bideak irakatsi ez* dizazkion agindu beŕia yaŕi da, t. a., erabili. *(Ikusi 56, 57'g. ingoskiak).*

## X

### ESAKUN-MOTAK

28. Esakuna askotakoa izan daiteke: *eikoya*, edo aditz eikoya duna; *izakoya*, edo aditz izakoya duna; *bayeztuna* edo zerbait bayeztu dagiana; *ezeztuna*, edo zerbait ezeztu dagiana; *ezpaiduna*, edo ezpaya ageŕtzen duna; *galdeduna*, edo zerbait galdetzen duna.

ADIBIDEAK:

Esakun eikoya = *Zere laguntza iguzu.*
Esakun izakoya = *Yoango naiz.*
Esakun bayeztuna = *Etoŕiko naiz.*
Esakun ezeztuna = *Ez naiz etoŕiko.*
Esakun ezpaiduna = *Lasteŕ ilgo bide da.*
Esakun galdeduna = *Nora zoazte?*

### YARDUKIZUNAK

1.ª Esakuna noiz ote da eikoya? —Esakun izakoyak zelako aditza izaten du? —Esakun eikoya zenbatakoa izan daiteke? —Esakun izakoya ere zenbatakoa izan daiteke?

2.ª **Uŕengo gayetaz mota guzitako esakunak antolatu.**

Itxasoa... —Izaŕak... —Txoriak... —Ikastetxea... —Igandetan... —Aŕautzak... —Seme onak... —Gizona...

**3.ª Uŕengo galdeai erantzunik, esakun osoak antolatu.**

Ikastolan zein gauza dira? —Gau argietan gorantza begiratuezkero, zer ikusten degu? —Aŕantzaleak zer egiten dute? —Nekazariak zein lanetan aritzen dira? —Yainkoa'ri zer zoŕ diogu? —Zeintzuk dira izakirik bikañenak?

**4.ª IZAN eikoya:** *Elkaŕerazko lenaldia.*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *aŕeri* | igaz | opa | zizayon..... | atzo | opa | zizazkion......... |
| *zuri* | » | » | zizazun...... | » | » | zizazkizun........ |
| *niri* | » | » | zizadan . . .. | » | » | zizazkidan........ |
| *ayei* | » | » | zizayen ..... | » | » | zizazkien.......... |
| *zuei* | » | » | zizazuen .... | » | » | zizazkizuen........ |
| *guri* | » | » | zizagun..... | » | » | zizazkigun........ |

Amabi mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *la* atzizkia erantsirikan erabili. *(Ikusi 58, 59'g. ingoskiak).*

YOSU'REN YAYOTZA

Yaik artzayak eta etoŕi
Belen'go txabol zaŕera,
Baŕt aŕatsean emen yayo dan
Auŕtxo polita aguŕtzera.

Auŕtxo polita,
Yaun aundiaren
Semetxo kutun
Maitea:
Zu zera gaurtik
Ludi guztiko
Yaun guŕgaŕi ta
Yabea.

Bañan nolataz
Txabolan yayo,
Izanik Yainko
Semea?...
Gugatik otzez
Daŕ-daŕka zaude...
Lo, kutuna, lo,
Umea!...

*Sagartzazu'tar Kauldi.*

## XI

### ESAKUN-ATAL-YOSKERA

29. Berezikien adirazi nai dan itza, edo itz-batza, aditz-auŕean yaŕi beaŕ da. (1)
30. Berezikien aditza bera adirazi nai izanezkero, geyenetan *egin* aditza geitzen zayo.
31. Berezikien aditzarekiko *bayetza* adirazi nai izanezkero, aditza lenen yaŕi oi da, ta batzuetan *ba (bai)* auŕean erantsi beaŕ izaten zayo.
32. Berezikien aditzarekiko *ezetza* adirazi nai izanezkero, aditza lenen yaŕi oi da, auŕian *ez* atalitza dularikan.

ADIBIDEAK:

(29). *Nor da ona? Au da ona. Au nolakoa da? Au ona da.*
(30). *Jostalua galdu egin al dezu? Puskatu egin zait; kendu egin didate mutilak.*
(31). *Etoŕi ote da aita? Etoŕi da aita; ba-datoŕ aita zaldiz.*
(32). *Ez da etoŕiko aita: ez datoŕ aita, deitu ez diotelako.*

**Oaŕa.** Esaki-atalak, edo itz bi ala geyako, alkar-yosteko arau bakaŕa: itz nagusien edo gaŕantzidunenak bestelakoen auŕean yaŕi oi dira: izena zendiñaren auŕean, yabea yabedunaren auŕean, eta abaŕ. *Adib.: Gizon ona, nire etxea.*

(1) Esakun bi ala geyagok, bata besteari nagusiagoari bezela lotuta egonezkero, *esakuntza* egiten dute; esakuntzako aditz nagusiena azkenengo yaŕtzen da; berezikien adirazi nai dan esakuna, beŕiz, aditz nagusienaren auŕean. *Osabak ekaŕi digun sagaŕdo bizia igandean edango degula esan du aitak.*

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Aditz-aurean zer yaři bear da? —Berezikien aditza bera, aditzarekiko bayetza, ala ezetza adirazteko zer egiten da?

### 2.ª Uřengo esakun-yoskerak azteřtu.

Mutil-ořek amař urte ditu; aurten gaiztotu egin da; zigořtatzen dute bere gurasoak; alpeřik bide-da, ordea; ikastetxean ere ez du irakasleak agintzen diona egin nai izaten; beste ikasleak nastu egiten dizkiolako, irakaslea aspeřtuta dago noski, ta ikastetxetik aterazitzeko asmoa omen du; ba-daki ori berak ere. Ez zaitezte mutil ori bezelakoak izan, ařen!

### 3.ª Uřengo gayaz esakun bayeztunak eta ezeztunak egin.

Umea txadonan (elizan) nola egon beař dan; zer egin beař dun eta zer egin ez.

### 4.ª IZAN izakoya: *Elkařerazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | orain | lotsa | dedin | *ura* | len | lotsa | zedin |
| *zu* | » | » | zaitezen | *zu* | » | » | zindezen |
| *ni* | » | » | nadin | *ni* | » | » | nendin |
| *ayek* | » | » | ditezen | *ayek* | » | » | zitezen |
| *zuek* | » | » | zaitezten | *zuek* | » | » | zindezten |
| *gu* | » | » | gaitezen | *gu* | » | » | gindezen |

Aizki abek *la* atzizkiaz erabili, *lotsa* ordez *il*, *bizi*, *ito*, ta abar, esanik. *(Ikusi 70, 71'g. ingoskiak).*

# XII

## ITZ-MOTAK: IZENAK

33. *Izenak, zendiñak, ordeitzak, aditzak* eta *atalitzak*, itz-motak dira.
34. Notiñak, abereak eta beste gauza batzuk izendatzeko erabiltzen ditugun itzak, *izenak* dira.
35. Izenak bitakoak dira: *buru-izenak* eta *mota izenak*. Buru-izenak, oneri ala besteari dagozkionak dira; mota-izenak, mota bateko izaki edo gauza guziai dagozkienak.

ADIBIDEAK:

Buru-izenak = *Paul, Iruña, Begoña, Oria, Aune.*

Mota-izenak = *gotzona, gizona, mendia, aŕia.*

## YARDUKIZUNAK

1.ª Itz-motak zeintzuk dira? —Zeintzuk itz dira izenak? —Buru-izenak zeintzuk dira? —Mota-izenak zeintzuk dira? —Buru-izenak eta mota-izenak zertzui dagozkie?

### 2.ª Esakuntzak antolatu.

Ikasleak, nork bere eŕiko olak, etxe nagusiak, mendiak eta beste gauza oaŕgaŕienak idatziz atzalduko dituzte.

## 3.ª Buru-izenak eta mota-izenak zeindu.

Urbia'ko gazta gozoa yan det. Atzo aitak seme-alaba oro Urbia zelaira eraman giñuan ango ardiak ikusi ta gaztak yan genitzan, eta yostatu girdezen. Bertan amaika artalde ziran! Artzayak zaitzen zituzten. Sabin artzaya, gure aitaren ezaguna, ere, antxen aŕkitu genuan bai, ta bi gazta beŕi eman zizkigun, amak ere etxean txastatu zitzan. Urbia zelaya Aizkoŕi-ondoan dago. Aizkoŕi'tik Napaŕa, Araba, Bizkaya ta Gipuzkoa ikusten dira.

## 4.ª IZAN izakoya: *Elkaŕerazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | orain | lotsa | datzakion | *ura* | len | lotsa | zekion..... |
| *zu* | » | » | zatzakion | *zu* | » | » | zenkion.... |
| *ni* | » | » | natzakion | *ni* | » | » | nenkion.... |
| *ayek* | » | » | datzazkion | *ayek* | » | » | zekizkion... |
| *zuek* | » | » | zatzazkion | *zuek* | » | » | zenkizkion.. |
| *gu* | » | » | gatzazkion | *gu* | » | » | genkizkion.. |

Amabi mordoska abetako beste aŕpuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *lotsa* ordez *yoan*, *eldu*, *asaŕetu*, t. a., erabiĺi. *(Ikusi 70, 71'g. ingoskiak).*

# XIII

## ZENDIÑA

36. *Zendiña*, izenari, berau zeindu ala mugatzeko, alboan yartzen zayon itza da.
37. Izena zeindu egiten dun zendiña, *zeintzaĺea* da; izena mugatu egiten duna *mugatzaĺea* da, ordea.

Adibideak:

Zeintzaĺeak = aŕi *txikia*, aŕi *aundia*.
Mugatzaĺeak = *sei* idi, *bigaŕen* eguna, gizon *au*, gauza *gutxi*, *edozein* langile, *zein* etxe?

**Oaŕa.** Zendin *zeintzaĺea* izen-atzean yaŕtzen da.

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Zendiña zer da? —Zendiña bakaŕik egoten al da? —Zeintzaĺea zertarako da? —Mugatzaĺea zertarako da? —Zendiña izen-auŕean ala atzean yaŕi beaŕ da?

### 2.ª Izenai zendin egokiak, eta zendiñai izenak geitu.

Gizon — ogi — ardo — ortze — mendi — baratz — itxaso — iloba — beltza — zoŕotza — amazazpi — zintzoak — izugaŕia — edozein — zenbat — indaŕisuak — eŕukaŕiak.

**3.ª Uŕengo aditz bakoitzari osterako gauza dikuŕan beste aditz bana alderatu:** *bizi*'ri *il*...

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| bizi, — | eman, — | auldu, — | gaiztotu, — | bete, |
| geitu, — | poztu, — | berotu, — | beltzitu, — | yoan, |
| jetxi, — | ipiñi, — | txikitu, — | loditu, — | maite, |
| iriki, — | erosi, — | zuzendu, — | ase-izan, — | aŕotu, |

**4.ª IZAN eikoya:** *Alerazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | maite | dezake ........ | *ura* | len | maite | zezakean ... |
| *zu* | » | zaitzake........ | *zu* | » | » | zintzakean .. |
| *ni* | » | nazake ........ | *ni* | » | » | nintzakean.. |
| *ayek* | » | ditzake ........ | *ayek* | » | » | zitzakean ... |
| *zuek* | » | zaitzaeke ...... | *zuek* | » | » | zintzaekean.. |
| *gu* | » | gaitzake....... | *gu* | » | » | gintzakean.. |

Mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta lenaldiko aizkiak *an* atzizki-gabe erabili. *(Ik. 60, 63'gk.)*

MIREN MAGALEAN

Amaren magal
beroan dago
Yosu umetxoa
zibuka;
bero-beroa,
iŕi-paŕeka
Miren Amaren
magalan.
Beren oñetan,
oizan-otzana,
ardia dago
bebeka;
bebeka dago
beren oñetan,
otzez dardaraz
ardia.

—Ama, amatxo,
dio Semeak,
nor dago bean
alaka?
—Ardi polita
dago, kutunoi,
otz eta itunez
dardarka.
—Ardi gaxoa!
Ekaŕi, ama,
ekaŕi nere
ondora;
biok batuta
zere magalan
izango degu
beroa.

AIZKIBEL'DAR BINGEN.

*(Uŕetxindoŕa*'tik aŕtu ta gipuzkeraz ipiñita).

# XIV

## ORDEITZAK

38. Ordeitzak bitakoak dira: *notin ordeitzak* eta *izen-ordeitzak*. Notin-ordeitzak notiñen ordez egoten dira; izen-ordeitzak, beŕiz, edozein izenen ordez.
39. Notin-ordeitzak abek dira: *ni, zu; gu, zuek*. (1)
40. Izen-ordeitzak abek dira: *au, ori, ura; abek, oyek, ayek*.
41. Ordeitzai indaŕ geyago emateko, (I), edota, lenago aitaturikoa beŕaitatzeko, (B), onela aldatzen dira:

| | (I) | (B) | | (I) | (B) |
|---|---|---|---|---|---|
| *ni* : | nerau | nerau | *gu* : | gerok | gerok |
| *zu* : | zerori | zerori | *zuek*: | zerok | zerok |
| *au* : | auxe | berau | *abek*: | abexek | beroneik |
| *ori* : | orixe | berori | *oyek*: | oyexek | beroyek |
| *ura* : | uraxe | bera | *ayek*: | ayexek | berak (**berayek**) |

## YARDUKIZUNAK

Zenbatakoak dira ordeitzak? —Notin-ordeitzak zeren ordez yaŕtzen dira? --Izen-ordeitzak zeintzuk dira? --Izen-ordeitzak bestetara zertarako erabiltzen dira? —Iñoiz zendiñak izaten al dira?

(1) Baita *i* ere notin-ordeitza da; onetzaz, baña, lenengo maila ontan ez det ezer yaŕiko.

**2.ª Uŕengo esakunetan esapurutzat ordeitzak ipiñi.**

... bere itza yan egin du. —... entzungoŕ egin zenion. —... zuzen zaude. —... okeŕ gaude. —... lotsagaŕitu egin dute. —... adaŕa yo diot. —... istilu goŕiak ikusi zituan.

**3.ª Uŕengo aditzak dikuŕtena ona ala gaiztakeria dan esan.**

Atzipetu, ostu, azketsi edo barkatu, yaunartu, aitoŕtu, gaiztetsi, ikasi, erail, lagundu, zauritu, donautsi.

**4.ª IZAN eikoya:** ***Alerazko añaldia.***

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *aŕeri* gau | ona | opa | dizayoke.... | gau | onak | opa | dizazkioke |
| *zuri* | » | » | » dizazuke.... | » | » | » | dizazkizuke |
| *niri* | » | » | » dizadake.... | » | » | » | dizazkidake |
| *ayei* | » | » | » dizayeke.... | » | » | » | dizazkieke |
| *zuei* | » | » | » dizazueke.... | » | » | » | dizazkizueke |
| *guri* | » | » | » dizaguke.... | » | » | » | dizazkiguke |

Amabi mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *gau ona opa* ordez *eskaŕ-egin, goraintziak eman* erabili. *(Ikusi 60, 61'g. ingoskiak).*

## XV

### ATALITZAK

42. Atalitzak askotakoak dira:

*Galde-atalitzak*: nor, zein, zenbat, noiz, nun, nola, zela, al.

*Erantzun-atalitzak*: norbait, zerbait, noizpait, nunbait.

*Bayezko-atalitzak*: bai, bayetz, ere, noski, alegia.

*Ezezko-atalitzak*: ez, ezetz; ezer, iñor, iñoiz; iñun, iñola... ez.

*Ezpai-atalitzak*: edo, ote, bide, omen, baldin.

*Era-atalitzak*: aisa, bezela, bezin, iya, samaŕ.

*Kopuru-atalitzak*: asko, gutxi, naiko, oparo, geigo.

*Bakuntza-atalitzak*: ta, eta, baña, ordea, beŕiz.

*Oyu-atalitzak*: ai!, ene!, ea!, ba!, tira!, utikan!, aŕen!, eup!

### YARDUKIZUNAK

1.ª Galde-atalitzak zertarako dira? —Erantzun-atalitzak zertarako dira? —Bayezko ta ezezko atalitzak zertarako dira? —Zer dikuŕte ezpai-atalitzak, era-atalitzak, eta kopuru-atalitzak? —Bakuntza-atalitzak eta oyu atalitzak zertarako dira?

## 2.ª Esakun bakoitzean atalitz egokia ipiñi.

Atzo... gizon etoŕi ziran? Lau. —Bayona'ra... yoango zerate? Etzi. —Amak atzo... erosi zizun? Txapela. —Paul... Bingen anayak dira. —Aurten garia... izan degu.

## 3.ª Uŕengo itz bakoitzekiko esakun bana eraldu, atalitz bana, beintzat, saŕturikan.

Lo, txiŕist, iges, atzera, auŕera, negaŕ, irain, bultza, zotz, poŕot, eztanda, zati-zati.

## 4.ª IZAN eikoya: *Aleŕazko lenaldia.*

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| *aŕeri* | opa | zizayokean...... | aspaldi | opa | zizazkiokean |
| *zuri* | » | zizazukean...... | » | » | zizazkizukean |
| *ñiri* | » | zizadakean...... | » | » | zizazkidakean |
| *ayei* | » | zizayekean...... | » | » | zizazkiekean |
| *zuei* | » | zizazuekean...... | » | » | zizazkizuekean |
| *guri* | » | zizagukean...... | » | » | zizazkigukean |

Amabi mordoska abetako beste eipuruari dagozkien aizkiak antolatu; eta *an* atzizki-gabe ta *opa* ordez *noiznai irabazi* esanik erabiĺi. *(Ikusi 62, 63'gnk.)*

# XVI

## ERASKIAK:

**Aur̃izkiak, tar̃tizkiak, atzizkiak.**

43. *Eraskiak*, itzari erantsi edo yosi egiten zazkion izki ta izkiñak dira.

44. Itzari aur̃ean eransten zayon eraskia *aur̃izkia* da; tar̃tean eransten zayona, *tar̃tizkia*; eta atzean eransten zayona, *atzizkia*.

ADIBIDEAK:

Aur̃izkidun itzak: *be*r̃ogei, *bi*l̃oba, *n*ator̃.
Tar̃tizkidun itzak: e*ra*kar̃i, i*ra*zan, ne*n*kar̃an
Atzizkidun itzak: itz*a*, zue*k*, ni*re*, etxe*ko*.

**Oar̃a.** Eraski geyen-geyenak atzizkiak dira.

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Eraskiak itzak al dira? —Eraskiak bakar̃ik egoten al dira? —Zenbat eraski mota dira? —Zela eransten dira? —Eraski geyenak zer dira?

### 2.ª Ur̃engo galdeai itzez ala idatziz erantzun.

Etxea zer da? —Etxea egiten zeintzuk langil̃e aritzen dira? —Uri-etxeko zati oituenak zeintzuk dira? —Eta nekazari-etxekoak? —Etxeak osasungar̃ia izateko zer du bear̃a?

## 3.ª Izenak, zendiñak, ordeitzak eta atalitzak zeindu.

JOANES ARTZAYA

Ura zan gizona, ura! Zazpi oin ta erdi bai luze, makal zugatzaren irudira zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogoŕa bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.

Oŕela zan Joanes nik ezagutu nuanean. Sendoak zeuden oraindik artzai zaŕaren beso zaintsuak, txit azkaŕak bere oñak, zindoak bere bulaŕ-auspoak.

Irurogeta amabi aldiz ikusi zuan Aloña mendiko ariztietan ostro berdea beŕiz jayotzen; baña etzion eramango emeretzi urteko mutil batek ez aizkora jolasean, ez burni astuna jaurtitzen, ez mendietan gora ta ibaŕetan zeaŕ lasteŕka.

*(Garoa).* *Agiŕe'taŕ Domeka.*

## 4.ª IZAN izakoya: *Alerazko oñaldia ta lenaldia.*

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | gaur | lotsa | daiteke .... | *ura* | lenago | lotsa | zitekean... |
| *zu* | » | » | zaiteke..... | *zu* | » | » | zintekean.. |
| *ni* | » | » | naiteke..... | *ni* | » | » | nintekean . |
| *ayek* | » | » | daitezke,... | *ayek* | » | » | zitezkean.. |
| *zuek* | » | » | zaitezke.... | *zuek* | » | » | zintezkean. |
| *gu* | » | » | gaitezke.... | *gu* | » | » | gintezkean. |

Eskuyaldeko aizkiak *an* atzizki-gabe erabili; *lenago lotsa* ordez *ongi bizi* esanikan. *(Ikusi 73'g. ingoskia).*

## XVII

### ATZIZKI MUGATZALEA: *a*.

45. Mugatu beaŕ diran itzai geyenetan *a* atzizkia eransten zaye.

46. Atzizki au itzari eransteko, batzutan itzaren azken-izkia kendu ala aldatu beaŕ izaten da, onela:

*a)* Itzaren azken-izkia *a* baldin ba-da, *a* ori kendu.

*g)* Itzaren azken-izkia *au*, *eu* ba-da, *u* ori *b* biurtu.

*k)* Itzaren azken izkia *ai*, *ei*, *oi*, *ui* ba-da, *i* ori *y* biuŕtu.

ADIBIDEAK:

*a)* Mal̄a-a = *mal̄a;* arantza-a = *arantza*.

*g)* Gau-a = *gaba;* lau-a = *laba*.

*k)* Gai-a = *gaya;* bei-a = *beya;* loi-a = *loya*, ui-a = *uya*.

**Oaŕak.** 1.ª Izenak atzean zendiña ba-du, oneri eransten zayo *a* atzizkia: gau on*a*.

2.ª Esakun ezeztun eta galdedunetan *ik* atzizki mugatzalea erabiltzen da: *gizonik ote da?*, *bururik ez du*.

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Atzizkiak nun yartzen dira? —Zertarako erabiltzen da *a* atzizkia? —Itzari zela eransten zayo? —Azken-izkia igidiña duten itzai zela eransten zaye?

### 2.ª Uŕengo itzai *a* atzizkia erantsi.

Zuaitz, goi, erbi, idazkur, bustin, estu, gońizta, kui, gońingo, izoki, txipiroi, baba, ondańtz zabal, izkora, izpera aundi, ilbera, egutegi, ipańońatz, bultzi, tximista, tximiskuŕdi, tximispultzi.

### 3.ª Zenbakiak izkiz idatzi.

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 30, 31, 40, 50, 60, 70, 80, 90.

### 4.ª IZAN izakoya: *Alerazko añaldia ta lenaldia.*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | lotsa | datzakioke | *ura* | len | lotsa | zitzakiokean |
| *zu* | » | zatzakioke | *zu* | » | » | zintzakiokean |
| *ni* | » | natzakioke | *ni* | » | » | nintzakiokean |
| *ayek* | » | datzazkioke | *ayek* | » | » | zitzazkiokean |
| *zuek* | » | zatzazkioke | *zuek* | » | » | zintzazkiokean |
| *gu* | » | gatzazkioke | *gu* | » | » | gintzazkiokean |

Amabi mordoska abetako beste ańpuruari dagozkien aizkiak antolatu; eta *lotsa* ordez *otseintzan ari* erabili. *(Ikusi 72, 73'g. ingoskiak)*.

## XVIII

### ASKAŔ-ATZIZKIA TA EGILE-ATZIZKIA: *k*.

47. Mota-izenak, naiz gauza bat naiz asko adirazi ditzakete. Gauza bat adirazten dutenetan izen *bakaŕak* izaten dira; eta gauza asko adirazten dituztenetan, *askaŕak*.

48. Izen askaŕai *k* atzizkia eransten zaye. Baña izenaz ostean zendiña baldin ba-da, oneri eransten zayo.

ADIB.: *Gizona = gizonak; txakuŕ beltza = txakuŕ beltzak.*

49. Eipuruak, naiz ta bakaŕa izan, beti *k* egilеatzizkia eramaten du. Eipurua askaŕa dan ala ez aditzak erakusten du.

ADIB.: *Gizonak egin du; gizonak egin dute.*

**Oaŕa.** *Asko, gutxi, naiko, oro* itzak, askaŕak izateko, *k* atzizki-beaŕikan ez dute.

ADIB.: *Asko dira; naiko ogi yan ditugu..*

## YARDUKIZUNAK

### 1.ª Galde-erantzuketa.

Izena noiz da bakaŕa, ta noiz askaŕa? —Izen bakaŕa zein bidez askaŕtu egiten da? —Izen orok beaŕa ote dute *k* atzizki askaŕtzalea? —Eipuruak noiz aŕtzen du *k* egile-atzizkia?

### 2.ª Uŕengo izapuru ta eipuruak askaŕtu, ta aditzak beaŕ bezela aldatu.

Egazkiña, gizonak egaz egiteko da. —Atsontziak, azke utziezkero, gorantza egiten du. —Ogia yaki ona da. —Giza-eme oro il beaŕ... —Bei esnetsuak etekin aundia ematen digu.

### 3.ª IZAN eikoya: *Agintzerazko oñaldia.*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | maite | beza...... | *aŕeri* | opa | bezayo.... | bezazkio.... |
| *zu* | » | zaitza...... | *zuri* | » | bezazu.... | bezazkizu... |
| *ni* | » | naza...... | *niri* | » | bezat...... | bezazkit..... |
| *ayek* | » | bitza...... | *ayei* | » | bezaye.... | bezazkie.... |
| *zuek* | » | zaitzae.... | *zuei* | » | bezazue.... | bezazkizue.. |
| *gu* | » | gaitza..... | *guri* | » | bezagu.... | bezazkigu... |

Amazortzi mordoska abetako beste eipuruai dagozkien aizkiak antolatu; eta *maite* ordez *yan*, eta *opa* ordez *erakutsi*, ta abar, erabili. *(Ikusi 64, 65'g. ingoskiak).*

### 4.ª Oleŕkian askaŕ-atzizkiak biĺatu.

UŔETXINDOŔAREN ABESTIA

*Txiŕupiŕu, txi...*

Udabeŕiko
goizaldea da;
goizalde eder ta
garbia...
Bat-baten, alai
ta pozik, samuŕ
asi da abesten
txoria.

*Txoŕotxi, piŕi...*

Ez du besteak
bezela abesten,
ez da edozein
txoria...
Txori txikia
da, baña bere
abestia da
guria.

*Piŕitxi, txa, txa...*

Uŕetxindoŕa
abesten dago
zugatz-abaŕen
gañean.
Bere abesti
txit samuŕa da
beste abesti
aŕtean.

*Sagaŕtzazu'tar Kauldi.*

## XIX

### ATZIZKI YABEDIÑA: *en*.

50. Atzizki onek izen bata besteari, gauza bere yabeari bezela elkaŕtzen dio. Onela erabiltzen da:

*a)* Izen bakaŕai *r* taŕtizkiaren bidez eransten zaye.

*g)* Izen askaŕak, *en* atzizkia aŕtzeko, *k* askaŕtzalea galdu egiten dute.

51. Ordeitzak atzizki yabediña aŕtzeko aldatu egiten dira:

| | |
|---|---|
| *ni:* nire, nere, ene, neronen. | *gu:* gure, gere, geronen. |
| *zu:* zure, zere, zeroŕen. | *zuek:* zuen, zeren, zeroyen. |
| *au:* onen, onexen, beronen. | *abek:* aben, abexen, beronein. |
| *ori:* oŕen, oŕexen, beroŕen. | *oyek:* oyen, oyexen, beroyen. |
| *ura:* aŕen, aŕexen, bere. | *ayek:* ayen, ayexen, beren. |

Adib.: *a) Amaren magala; Kepa*'ren *burua; Paul*'ena.

*g) Iru semien aita (ez, iru semeaken aita).*

**Oaŕa.** Askotan *en* atzizkia yaŕi-gabe uzten da: *Miren-Biotza*.

# YARDUKIZUNAK

## 1.ª Galde-erantzuketa.

Atzizki yabediña zertarako da? —Izen bakařai ta azkařai beřdin eransten ote zaye? —Ordeitzak zein atzizki yabedin dute? —Atzizki yabediña beařa al da?

## 2.ª Uřengo esakietan tařte-ařastaren ordez atzizki yabediña yaři.

Yosu-Biotza. —Miren-Bíotza. —Ni-ama. —Neu-aita. —Zuyantzia. —Yainko-eřukia. —Guraso-ardura. —Gu-zorigaitza. —Eřoka-biotz gogořa. —Bei-lařua. —Idi-indařketa.

## 3.ª Uřengo galdeai erantzunik, esakunak egin eta idatzi.

Ařantzaleak nun bizi izaten dira? Egunero nora yoaten dira? Zer egiten dute? Zer ekařtzen dute? Zelako ontziak erabiltzen dituzte? Zeintzuk tresna? Eguzkia, ipař-izařa ta ipař-ořatza zertarako beař izaten dituzte? Galbiderik bai al dute?

## 4.ª IZAN izakoya: *Agintzerazko oñaldia.*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *ura* | lotsa | bedi........... | *ura* | bildur | izan | bekio..... |
| *zu* | » | zaite.......... | *zu* | » | » | zatzakio... |
| *ni* | » | nadin......... | *ni* | » | » | natzakion. |
| *ayek* | » | bitez.......... | *ayek* | » | » | bekizkio... |
| *zuek* | » | zaitezte........ | *zuek* | » | » | zatzazkio.. |
| *gu* | » | gaitezen....... | *gu* | » | » | gatzazkion. |

Beste ařpuruai dagozkien aizkiak antolatu. *(Ikusi 74'g. ingoskia).*

## XX

### *Ko* TA *n* ATZIAKIAK

52. *Ko* atzizkia askotara erabiltzen da, batez ere:

*a)* Galde abei erantzuteko: nungoa? noizkoa? zertarako? norako?

*g)* Izen eta aditzak elkaŕtzeko.

53. *N* atzizkia, *nun* galdeari erantzuteko, ta aizki-atzeko elkaŕ-atzizkitzat erabiltzen da.

ADIB.: *a)* Etxe*ko* ogia; atzo*ko*a; yate*ko*a.

*g)* Goiti*ko* ogia; ostuta*ko* txindia.

(53) Gela*n*, goya*n*, nerea*n*; maite du*n* umea.

**Oaŕak.** 1.ª Izen askaŕai *ko* ta *n* atzizkiak *eta* taŕtizkiaren bidez eransten zazkie. ADIBIDEA: *Basoetako zuaitzetan txoriak dira.*

2.ª Izen-ordeitzai onela eransten zazkie:

| | |
|---|---|
| *au:* emen, ontan; emengo, ontako. | *abek:* abetan; abetako... |
| *ori:* oŕ, oŕtan; oŕko, ortako. | *oyek:* oyetan; oyetako... |
| *ura:* an, artan; ango, artako. | *ayek:* ayetan; ayetako... |

## YARDUKIZUNAK

Zein galdeai erantzuteko erabiltzen da *ko* atzizkia? —Beste zertarako erabiltzen da? —Zeŕtarako erabiltzen da *n* atzizkia? —Izen askaŕai zela (nola) eransten zazkie? —Eta izen-ordeitzai?

**2.ª Ar̃te-kulatzen ordez *ko* ala *n* atzizkiak yar̃i.**

Nik janda... ogia. Mendi... zuaitzak er̃e egin dira. Zuaitz gusti... igaliak erosi ditut. Goi... itur̃ia. Be... etxea. Zelaya... belar̃a da. Etzi... jaya. Itxaso... ar̃ayak. Gipuzkoa'ko mendi... elur̃a da. Abereak ukulu... daude. Aur̃e... zer dezu?

**3ª Ur̃engo idazkunean *ko* ta *n* atzizkiak bilatu.**

Lenbiziko egin bear̃ dezun gauza etsai gaiztoa garaitzeko, da zere burua ilduratzea edo mortifikatzea. Ez da etsairik garaituko, ez du izain (izango) zeruko ondasunik, ildura onetan sar̃tu nai ez duenak. Nerekin, edo nere ondoren etor̃i nai duenak—Jesus onak itz egiten dizu—ez dagiela gogo gaiztoak eskatzen dion gauzarik: ar̃ beza bere gurutzea, ta jar̃ai bekit, edo betor̃ nere ondotik: gurutzea soñean, ta bere burua begitan ar̃turik ez dar̃aikidana ezin daiteke nere ikasle edo eskolakoa.

*Mendiburu Aba.*

**4.ª IZAN eikoya: *Baldintzera*.**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *ar̃ek* | laguna maiteko | luke | maite | ba-lu | al | ba-leza |
| *zuk* | » » | zenuke | » | ba-zenu | al | ba-zeneza |
| *nik* | » » | nuke | » | ba-nu | al | ba-neza |
| *ayek* | » » | lukete | » | ba-lute | al | ba-lezate |
| *zuek* | » » | zenukete | » | ba-zenute | al | ba-zenezate |
| *guk* | » » | genuke | » | ba-genu | al | ba-geneza |

Elburutzat *lagunak* ipiñita, aizki egokiak antolatu, *it* tar̃tizkia erantsirikan: lituke, ba-litu, ba-litza... *(Ik. 66'g.)* Baita beste aditz eikoyen aizki oituenak ere erabili. *(Ik. 76'g. ing.)*

# XXI

## ELKAŔ-ATZIZKIAK

### 54. Bizigeai dagozkienak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| *a, ra* ........ | luŕera ....... | luŕetara...... | luŕ ontara...... |
| *ako* ......... | luŕerako ..... | luŕetarako ... | » oŕtarako.... |
| *an*........... | luŕean ....... | luŕetan....... | » aŕtan ....... |
| *antz*......... | luŕerantz..... | luŕetarantz ... | » abetarantz... |
| *año* ......... | luŕeraño ..... | luŕetaraño ... | » oyetaraño .. |
| *gatik* ........ | luŕagatik..... | luŕengatik.... | » ayengatik... |
| *k*............ | luŕak ........ | luŕak ........ | » onek........ |
| *en*........... | luŕaren ...... | luŕen ........ | » oŕen........ |
| *entzat* ....... | luŕarentzat... | luŕentzat ..... | » aŕentzat..... |
| *tik* .......... | luŕetik ....... | luŕetatik ..... | » abetatik..... |
| *tzaz, z* ...... | luŕatzaz...... | luŕetzaz...... | » oyetzaz..... |
| *z, taz* ....... | luŕaz ........ | luŕetaz....... | » ayetaz...... |
| *i*............ | luŕari........ | luŕai......... | » onexeri..... |
| *ko* .......... | lnŕeko ....... | luŕetako ..... | » bertako..... |

### 55. Bizidunai dagozkienak:

| | | | |
|---|---|---|---|
| *gana*.... | amarengana .... | gurasoengana .... | onengana... |
| *ganako* . | amarenganako .. | gurasoenganako.. | oŕenganako. |
| *gan*..... | amarengan...... | gurasoengan...... | aŕengan .... |
| *ganantz*. | amarenganantz.. | gurasoenganantz . | abenganantz |
| *ganaño* . | amarenganaño... | gurasoenganaño.. | oyenganaño. |
| *gatik* ... | amarengatik..... | gurasoengatik .... | ayengatik... |
